

Donejakue Bidearen ibilbidea

20,9 km



ZIRKULARRA
ERRAZA

108m



www.walkingandrinning.es

GASTEIZ ERE BIDEA DA



André Maria Zuriaren plaza, Vitoria-Gasteiz



Donejakue bideak ibilbide bat irekitzen du Gasteizen, erromesei, edo, kasu honetan, ibiltari zein korrikalariei, hiriko gune sentsozialenetan barrena paseatzeko aukera emateko. Ibilbidean aurkituko ditugun lurreko lauzak erreferentzia gisa harturik, erromes santuari izena ematen dion kalean hasten da ibilbidea: **Done Jakue hiribidean**.

Gasteiz mugari garrantzitsu bat izan zen Erromesen Bidearen barruan, eta hirian bost ospitale ere izan zituen bere garaian. Eta **Done Jakue hiribideak**, hain zuzen, Erdi Aroko ospitale horietako bati zor dio izena. Bidean aurrera egingo dugu **Errege Atetik**, eta kale horri hala deitzen zaio Nafarroako errege-erreginentzat hirian barneratzeko sarbidea izan zelako bere garaian. Ibilbideko puntu horretan Juduen auzo zaharrean sartuko gara, **Barnekale Berrian** aurrera eginez, eta, kalearen amaieran, kapera txiki batek erakarriko du gure begirada, bertan **San Ildefonsoen Kristoaren tailu zoragarria** dagoelako, hiritik igarotzean erromesaren lehen geldialdia izan zena.

Erromesen Bidetik gora eginez, **Santa Maria Plazaraino** (1) igoko gara, eta bertan, hiriaren historian eta **Katedral Zaharraren** (2) tenpluan barneratzeaz gainera, Done Jakueen erreferentzia bat baino gehiago aurkituko ditugu; horietako bat **Santa Maria eliza** da, katedralari erantsita egonik Done Jakueen kapera izan zena eta santuaren zenbait irudi gorde dituena.

Jarraian, gorantz jarraituko dugu **Frai Zacarias** kalean (3) barrena, eta **Eskoriatza-Eskibel Jauregi** platereskoa aurkituko dugu bertan, haren kanpo-ikonografiak maitasun-istorio eder bat kontatzen digularik. Ibilbidearen tarte horretan Errenazimenduko zenbait jauregi ageri dira; bereziki, **Montehermoso Jauregia** da gure bidean aurkituko duguna. Hirira bisitan zetozen errege-erreginen ostatu izan zen, baita gotzaindegiaren egoitza ere.

Hiriko puntu gorenera ekarri gaitu bideak, eta hortik beherantz abiatuko gara, bere garaian muinoa izan zenaren barrena (4), behin beharaino iritsita, hiriko dorre nagusietako baten aurrean gelditzeko: **San Pedro eliza**. Bere garaian Zapardiel ibaia ibili zen kalean aurrera eginez, **Probintzia**




Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Jauregi neoklasikoraino iritsiko gara, gaur egun Arabako Foru Aldundiaren egoitza dena.

Hiriko erdigunean kokatzeko garaia da: **Andre Maria Zuriaren plazan** (📍5) gaude, bere garaiari azoka-plaza izan zena. Atzera eginez, **Loma Jeneralaren plazan** sartuko gara. **San Antonio komentua** dago bertan, ornamentaziorik gabeko barroko-estilokoa.

Aurrera eginez, **Eusko Legebiltzarraren** egoitzara iritsiko gara. Ibilbideaz goatzeko garaia da, **Florida parke** (📍6) eder eta erromantikoaren lorategiak zeharkatuta. Senda ibilbidearen eta **Frai Francisco kalean** (📍7) barrena, atzean hainbat jauregi, museo (📍8) eta jauretxe utzi ondoren, gure etaparen amaierara iritsiko gara.



interesguneak

- Santa Maria Katedrala
- Montehermoso Jauregia.
- Florida Parkea.

informazio gehiago

www.walkingandrunning.es
www.turismo.euskadi.eus



Santa Maria Katedrala 📍

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience